

## urola garaia



Larunbateko herri-kirol desafioan parte hartuko dutenetako batzuk, Urretxuko Gernikako Arbola plazako harmaila azpian. ARGAZKIA: A.Z.

### Neskek behar dira telebistarako

Urretxu-Zumarraga herri-kirol elkarteak, larunbateko ekitaldia antolatzeaz gain, Locala telebista katearen saio batean parte hartzeko asmoa du. Herrien arteko lehiaketa izango da eta bost proba izango dira: sokatira, zakurkarrera, lokotx biltzea, txinga lasterketa eta galdera-erantzunen atala. Herri bateko kideei besteari buruzko galderak egingo zaizkie. Kanporaketak jokatuko dira eta finala irabazten duen taldeari bidala bat oparituiko zaio. Aipatu bezala, Urretxu-Zumarraga herri-kirol taldeek saioaren berri izan du eta parte hartzeko asmoa du Hiru talde aurkeztu nahi ditu: Ezkio-Itsasokoa Urretxukoa eta Zumarragakoak. Bakoitzak sei kide izan behar ditu: hiru gizonezko eta hiru emakumezko. Herri-kirol taldeak nahikoa mutil ditu, baina neskek behar ditu. Hori dela eta, aipatutako hiru herrietako emakumezkoak ekimen honetan parte hartzea animatu nahi ditu. >A Z

# Hogeita lau lagunek parte hartuko dute Urretxuko herri-kirol desafioan

AURTENGOA HIRUGARREN EKITALDIA DA ETA TALDEAK ADINAREN ARABERA OSATU DIRA

Zazpi proba izango dira: harri, ingude, fardo, lokotx, txinga, trontza eta aizkoiarekin osatu beharrekoak

#### ASIER ZALDUA

URREIXU Larunbatean, 17:30etik aurrera, koadrilen arteko herri-kirol txapelketaren hirugarren edizioa jokatuko da Urretxuko Gernikako Arbola plazan. Aurten hiru talde arituko dira. Pueyo garraioak izenekoak 30 urtetik beherakoek osatuko dute; Krak tabernarena 30 eta 40 urte bitartekoek eta Cafés Aitona izenekoak 40 urtetik goiakoek

Zazpi proba osatu beharko dituzte: harria, ingudea eta fardoak altxatu; lokotxak eta txingak eraman eta trontzarekin eta aizkoiarekin enborrak ebaki.

Ikuskituzun hau Urretxu-Zumarraga herri-kirol elkarteak antolatu du, berritortako udalen laguntzarekin. Lehenik eta behin, hiru lagunek 50 kiloko bota 30 aldiz altxatu beharko dute; Pueyo garraioak taldeko Iñi-

go Zalduak, Krak taldeko Kepa Mendikutek eta Cafés Aitona taldeko Karios Mujikak.

Ondoren, bata bestetik metro batera jarrirako 30 lokotx bildu beharko dituzte Andoni Jakak, Asier Juaneanak eta Julio Pascualek. Hirugarren proban Joseba Zabaletak, Egoitz Armaleak eta Jesus Ninek 25 kiloko txingak eramango dituzte erori arte. Laugarrenen Mikel Elgar restak, Jabier Erostarbek eta Jexux Lizarazuk 18 kiloko ingudea 60 aldiz altxatu beharko dute eta bosgarrenen Josu Zabaletak, Iñaki Gineak eta Juan Mari Legorburuk 40 kiloko fardoak 10 aldiz altxatu dute.

Bukatzeko, kirolariak enborrak ebakiko dituzte. Trontzarekin

Aimar eta Peio Alberdi, Aitor Pueyo eta Josu Plazaola eta Iñixio Izagirre eta Ino Ugarteburu arituko dira. Bikote bakoitzak 10 aldiz ebaki beharko du 45 hazbeteko enborra Aizkorarekin, berriz, Julien Aranberri, Xabier Zaldua eta Iñaki Ibaruren arituko dira. 54 hazbeteko bi enbor ebaki beharko dituzte. Ariketa bakoitzean irabazleak hiru puntu irabaziko ditu, bigarren sailkatuak bi eta azkenak bat. Puntu gehien lortzen dituen taldeak irabaziko du lehiaketa.

24 partehartzaileek aste batzuk daramatzate jada entrenatzen eta saioak ikusmina piztu du. Hala, Krak eta Soraluze tabernetan kinitela egin da. Urretxu eta Zumarraga asko parte hartzen ari dira bi

euoren truke. Proba bakoitza norik irabaziko duen asmatu behar da.

Antolatzaileak gustura dira. "Aurreko urteetan koadrilen artean jokatu da baina aurten partehartzaileak adinaren albera sailkatzeara erabaki dugu. Saltsa pixka bat sortzeko egin dugu", aipatu du Toribio Kerejeta zumarragarrik. Kerejeta 30 eta 40 urte bitartekoak entrenatzen ari da, baina ez du faboritu argirik ikusten. "Hiru taldeak nahiko berdinduta ikusten ditut. Hori ona da: hala ikusleek gehiago gozatu dute", azaldu du.

Berak prestatzen dituen gazteetako batzuk ETB1 telebista kateko *Bi errepleto*an telebista saioan agertuko dira hilaren 28an Urretxu eta Zumarragako gizon-probari buruz eskainiko den erreportajearen. Kerejeta aurten ere ikuskituzun hori eskaintzeko prest da. "Zumarragako taldea animatuta dago eta besteak ere animatuko direla uste dut. Dirulaguntza baki bat besterik ez dugu eskatzen. Izan ere, hildabeak ematen ditugu saioa prestatzen eta afari koxkor bat merezi dugu sikiera!" amaitu du.

## Arranca el ciclo de foros sobre la memoria histórica de las mujeres

HAN SIDO ORGANIZADOS POR ERALDATZEN, ASOCIACIÓN DE URRETXU Y ZUMARRAGA QUE CUMPLE CINCO AÑOS EN 2008

ZUMARRAGA. La asociación pro mujer Eraldatzen ha organizado diversos foros acerca del papel que las mujeres han desempeñado en la historia de la humanidad y, más concretamente, en el devenir de la comarca de Urola Garaia. El primero de ellos tuvo lugar ayer por la tarde en la casa de cultura Zelai Arizti de Zumarraga.

La segunda sesión se celebrará en junio. En la misma se hablará sobre las mujeres emprendedoras en la historia moderna de Gipuzkoa y

también se dará a conocer cuál era la situación que se vivía en la comarca a principios del siglo XX. Además, se rescatará del olvido la importancia que tuvieron las mujeres que trabajaban en las empresas en el desarrollo económico y social de la zona. El tercer y último foro tendrá lugar en octubre. Se hablará sobre el matriarcado vasco, su influencia en la familia y su impacto en la sociedad.

En junio hablarán de las emprendedoras guipuzcoanas y en octubre, acerca del matriarcado vasco

El año 2008 es muy importante para Eraldatzen, pues la asociación celebra su quinto aniversario. Además de organizar los actos mencionados, está preparando una publicación acerca de los derechos humanos y la mujer. Asimismo, se van a mantener reuniones para fijar un protocolo de actuación para casos de violencia y se va a crear un equipo de prevención relacionado con esta problemática.

Pero todo no acaba ahí. En mayo tomarán parte en el Día del Voluntariado y organizarán un foro acerca de la igualdad. Para junio han programado una charla sobre la sexualidad para las mujeres gitanas y un taller sobre el voluntariado y en noviembre tendrá lugar un nuevo foro sobre la igualdad. >A Z

## El logo del cuarto centenario toma Legazpi



LEGAZPI. Este año se celebra el cuarto centenario de la separación de Legazpi respecto a Segura y el logotipo conmemorativo realizado por el vecino Lander Zabaleta ha tomado algunos de los edificios públicos del municipio. Se puede ver en las fachadas del ayuntamiento y de la casa de cultura y en el salón de plenos. El día 24 de Asunción Urzaingui ofrecerá una conferencia sobre el nacimiento de Legazpi como entidad territorial. FOTO: A.Z.